

## **ELGOIBARKO UDALBATZAR BEREZIA**

2008ko maiatzaren 22a

### **Sarrera**

**IKASTETXEA:** NUESTRA SEÑORA DEL PILAR

**IKASLEA:** SARA DE CASTRO

Ni Sara de Castro naiz eta Pilar ikastetxetik nator. Gaur, hemen, Elgoibarko ikastetxeetako ikasle eta irakasleen ordezkariak bildu gara beste behin ere Eskolako Agenda 21 programan egindako lana udaletxe honetako ordezkariari aurkezteko.

Dakizuen bezala, proiektu honetan hainbat ikastetxeetako LH eta DBH ikaslek hartzen dugu parte eta horien guztien ordezkari bezala gatoz hemen bildu garen ikasleak.

Ikasturte honetan energiaren diagnostikoa landu dugu Debabarreneko 5 herri ezberdinetan: Elgoibarren, Eibarren, Deban, Mutrikun eta Soraluzen. Guztietan, energiaren inguruan dauden ingurumen-arazoak aztertu ditugu bakoitzak bizi duen errealitatetik. Hasi etxetik, eskolan nahiz kalean, energiaren erabilerari lotutako arazoak diagnostikatu ditugu.

Hainbat dira aurkitu ditugun arazoak, eta horien aurrean zer egin dezakegun aztertu dugu. Energiaren erabilera txarra ekiditeko, hainbat eta hainbat neurri har ditzakegu. Horiek betetzeko konpromisoak hartzeko prest gaude eta horren berri eman nahi dizuegu udaletxe honetako ordezkariok. Bestalde, udaletxe honetatik ere hainbat neurri bideratu daitezke zeregin horretara, eta horien gaineko proposamenak udaleko ordezkariak helaraztea ere proiektu honetako helburu garrantzitsuetako bat da.

Beraz, gaur ospatuko dugun udalbatzarraren helburua energiaren inguruan aurkitu ditugun arazoei irtenbidea aurkitzeko har ditzakegun neurriak plazaratzea da: bai norberari dagozkion konpromisoak eta baita udalari egiten dizkiogun proposamenak. Eskerrik asko.

### **1go proposamena**

**IKASTETXEA:** ELGOIBAR HERRI ESKOLA

**IKASLEA:** IKER YUDEGO, LH 5. maila

**DIAGNOSTIKOAREN AZALPENA:**

Azterketa egiterakoan, esan digute Mintxeta, Kiroldegia eta Herri Ikastetxearen berotzea, ura gasoilez berotuz egiten dela. Eraikuntzak era honetan berotuz gero, asko kutxatzen dugu Elgoibar

**KONPROMISOA:**

Horregatik, konpromisoa hartu dugu energiaren kontsumoa murrizteko hainbat proposamen aurrera eramateko: dutxako botoiak ahalik eta gutxien sakatu, argia eta berogailua behar dugunean bakarrik erabili...

**PROPOSAMENA EDO ESKAERA:**

Udaletxeari eskatzen dioguna da eguzki panelak erostea eta esandako lekuetan jartzea ahalik eta bizkorren.



## ERANTZUNA:

Printzipioz arrazoia duzue, egin daitezkeen gauzak dira, eta guztiz iraunkorrak. Baina gauzak ez dira hain errazak: •Eraikin bakoitzaren ezaugarriak aztertu beharko lirateke: eraikin mota, eguzkiarekiko kokapena, teilatuaren diseinua, materiala, ... •Gero diru kopuruaz hitz egin beharko genuke: 6 kwko instalazio baten kostua 35.000 – 40.000 €-koa da, instalazio obrak gehiatuz Baina, hurrengo urtera begira: EVE edo Energiaren Euskal Erakundearekin hitzarmen baten bidez, gauza hauek lantzen saiatuko gera.

## 2. proposamena

**IKASTETXEA:** ELGOIBAR HERRI ESKOLA

**IKASLEA:** CARLOS GOMEZ ALVAREZ, LH 5. maila

**DIAGNOSTIKOAREN AZALPENA:**

Ba guk aurkitu dugun arazoa Usuako txorroetakoa da, oso zikina ikusi bai dugu, jendeak latak, pipa bildukinak...botatzen dituelako.

**KONPROMISOA:**

- Gure ustez, Usuako txorroetan kartela jarri beharko litzatekeela, euskaraz eta erderaz, herritarrei, toki hori ez zikintzeko eskatzen.
- **Txartela, honela ipin daitekeela pentsatu dugu:** - Txorroren ondoko jardintxoan jar daiteke hanka biko txartela.
  - Zoruan bertan ere, jar daiteke plaka, eta bertan idatzi.
  - **Idazkia:** “Zaindu iturria”, “Manten dezagun iturria garbi”, edo “Zaindu herria”.
- Gu, gure aldetik, konprometitzen gara zikinkeriarik ez botatzeko.

**PROPOSAMENA EDO ESKAERA:**

Eskatzen duguna zera da: Udaletxeko langileek astean behin garbi dezatela.



## ERANTZUNA:

•Iturriak izaten dituen hondakinak, zuzaitzetako hostoak eta gusanito, propaganda paperak eta patata eta antzeko boltsa hutsak izaten dira. •Azken produktu horien kontsumitzaile handienak, zuek, gaztetxoak zarete, beraz hauek jan eta gero bota itzazue zakarrontzira, bestela haizeak bertara eraman ahal izango ditu, han geldituz garbitzaileak garbitu arte. •Brigadakoek ezin dute astero iturria garbitu, herritarren portaera desegoki bati soluzioa emateko. Hondakinak ez botatzea da irtenbidea, ez sarriagotan garbitzea.

- Kartelarena, ideia ona da, eta agian aurrera eraman daiteke, hala ere ezin da herria karteletz josi.
- Iturriko ura, zirkuito itxi bat da, beraz, aldiero Brigadakoek garbitzen dute, ura ere berritzen dute. .
- Hemendik aurrera iturriari jarraipen hurbilago bat egingo diogu, bai hondakin eta bai energi aldetik

### 3. proposamena

•**IKASTETXEA:** ELGOIBAR HERRI ESKOLA

**IKASLEA:** AITOR MAIZTEGI ALBERDI, LH 5. maila

DIAGNOSTIKOAREN AZALPENA:

Kezkatuta gaude Usuako eta Plazako lurreko argiek indar handia daukatelako eta begiratu ezker, begietan traba haundia egiten dutelako.

**PROPOSAMENA EDO ESKAERA:**

Horregatik, Udaletxekoei eskaera bat egin nahi dizuegu.

Usuako eta Plazako argien bonbila aldatu eta txikiagoa ipintzea, eta ahalik eta bizkorren egitea komeniko litzateke.



#### ERANTZUNA:

- Lurreko argiek udala Elgoibarko herriak dituen ondare arkitektonikoak erakusteko dira.
- Posiblea izan daiteke argitasun hori gehiegi izatea, lanpara edo luminariaren motagatik•Hilabete honetan Udala, Alde zaharreko energia eraginkortasunaren ikerketa egiten ari da, eta honelako gauzak hartuko dira kontuan beraz, ikerketaren emaitzak jaso arte itxaron beharko dugu.

### 4. proposamena

**IKASTETXEA:** ELGOIBAR HERRI ESKOLA

**IKASLEA:** ISABEL DIAZ, LH 5. maila

DIAGNOSTIKOAREN AZALPENA:

Guk ikusi dugun arazo bat farolen ingurukoa da.Konturatu gara, behar ez ditugunean ere piztuta egoten direla leku hauetan: Basarten, San Pedro kalean, tren geltokian eta Jausoro plazan. Netto ondoan gainera, piztu-itzalika ibiltzen den farola bat ikusi dugu. KONPROMISOA:

Pentsatzen dugu honelako arazo bat ikusten dugunean,udaletxean abisua ematea izan daitekela.**PROPOSAMENA EDO ESKAERA:**

Pentsatzen dugu ere, Udalak konpondu beharko lukeela ahal den azkarren Energia alferrik galtzen ari garelako. Proposatzen dugu ere- Behar ez ditugun farolak gutxitzea. - Nettoko farola konpontzea. ETAKontsumo urriko bonbila jartzea farola bakoitzean.



#### ERANTZUNA:

- Gaur egun herri guztietako farolak automatikoki pizten dira: - erloju astronomiko baten laguntzarekin. Eguzkia noiz irten eta eskutatzen denean badakitela - argi sentsoaren bat dutelako, eta argi gutxi dagoenean piztu egiten dira.
- Ez da komeni hauek manipulatzeko, hondatu egingo bailira, eta okerrago izango zitekeen.
- Hala ere, Errebisatu egingo ditugu, bere funtzionamendua ziurtatzeko eta aldi berean zuek esandako farolak konpontzeko.
- Zuen konpromisoari, ondo deritzot, udalari telefonoz edo emailez abisua eman, honek jakin dezan.

## 5. proposamena

**IKASTETXEA:** ELGOIBAR IKASTOLA

**IKASLEA:** ANA ZUMIBAURRE IRIONDO, LH 3. maila

**DIAGNOSTIKOAREN AZALPENA:**

Gure etxeetan argindarra gastatzen da eta askotan faktura heltzen denean komentatzen dugu: Zenbat gastatu dugu bi hilabete hauetan!!! PROPOSAMENA EDO ESKAERA:


hori ikusirik galdera hau planteatu genuen gelan : Elgoibarren zenbat argi indarra gastatzen da urte batean

**KONPROMISOA:**

Gu konprometitzen gara aurten urarekin egin dugun bezala, elkarlanean parte hartzeko udalarekin argindarraren erabilpen egokiaren aldeko informazioa zabaltzera



## ERANTZUNA:



<b>2006</b>	<b>etxekoa</b>	<b>zerbitzuak</b>	<b>industriak</b>	<b>GUZTIRA</b>
elektrizitatea (kwh)	14395541	15505656	68498222	98399419
gas naturala (kwh)	4770451	1253308		6023759
erregaiak				
<b>GUZTIRA (KWH)</b>				<b>104423178</b>

## 6. proposamena

**IKASTETXEA:** ELGOIBAR IKASTOLA

**IKASLEA:** JON GUILLÓ RODRIGUEZ, LH 5. maila

**DIAGNOSTIKOAREN AZALPENA:**

Nere ikaskideak esan duenaren arabera, energia aurreztea oso ideia garrantzitsua iruditzen zaigu, Ikastolan dagoeneko jarduera batzuk burutzen ari gara helburu horrekin, nire galdera honako hau da: ba al dago Udaletxean planen bat energia aurrezteko?

**PROPOSAMENA EDO ESKAERA**

Nire galdera honako hau da: ba al dago Udaletxean planen bat energia aurrezteko?



### ERANTZUNA:

•Monentu honetan udalak, Alde zaharreko argiteri publikoaren energia eragingarritasunaren **ikerketa bat burutzen ari da**, eta honen emaitzak zer aldatu beharko genuke energia era eraginkortasun batean erabiltzeko esango digu, beraz bigarren fasea, ikerketaren ondorioz ateratzen den Ekintza plana martxan jartzea izango da.

•Bestetik herriko beste hainbat tokitako argiteri publikoaren egoera egokitzen ari da, hauek gutxiago gasta dezaten: fluxoa gutxitzen duten aparatuak, ...

## 7. proposamena

**IKASTETXEA:** ELGOIBAR IKASTOLA

**IKASLEA:** XABIER LARRAÑAGA ETXABE, DBH 2. maila

**DIAGNOSTIKOAREN AZALPENA:**

Energi iturri berriztagarrien erabilpena bultzatu egin behar dela uste dugu, bestela ez berriztagarriekin bakarrik jarraitzen badugu, laster energi iturriak agortu egingo dira.

**PROPOSAMENA EDO ESKAERA:**

Aspaldi honetan Egoibarren etxe asko eraikitzen ari dira eta gure proposamena zera da eraikitzen ari diren etxe berriei eguzki plakak edukitzea arautzea, horrela behintzat, etxe horietako energi beharraren zati bat, energi berriztagarriekin hornituko da.



### ERANTZUNA:

•Dagoeneko badago estatu mailan, 2007an onartua, eguzki plaka termikoak jartzera derrigortzen duen araua. ••Arau hori, klimataziorako eta Ur bero sanitarioa ekoizteko instalakuntzak energia eraginkortasunak erabiltzera eskatzen du eraikin berrietan edo berrikuntzetan.

•Arau honek eskatzen dituen neurriak, aurten ezarri dira, beraz hemendik aurrera etxebizitza gehiago ikusiko ditugu plaka termikoekin, eta energia aurrezteko beste nolabaiteko aparatuekin.

## 8. proposamena

**IKASTETXEA:** ELGOIBAR IKASTOLA

**IKASLEA:** MIKEL ANAKABE ONDARRE, DBH 4. maila

**DIAGNOSTIKOAREN AZALPENA:**

Energia aurreztu egin behar dela denok dakigu, baina askotan herritarrak hori nola gauzatu jakin beharko genuke,

**PROPOSAMENA EDO ESKAERA:**

horregatik beste gai batzuekin egin den bezala proposamen hau egin nahi dugu: Udaletik kanpainak antolatzea energiaren aurrezpena bultzatzeko

## KONPROMISOA:

Eta gu konprometitzen gara kanpaina horietan parte hartzera, aurten bezala irrati programen bidez edo erabakitzen den bezala



## ERANTZUNA:

•Ikasturte honetan erabili duzuen **ESKOLA AGENDA**, energiaren iturriak, eta bere kontsumoa gutxitzeko aholkuen bildumekin, udalak antolatutako kontzientziazio kanpaina bat da, zuzenean zuei zuzendua. •Bestetik esan beharra dago, Euskadiko Energiaren Erakundea urte honen hasieran kontsumo gutxiko bonbillak eta etxean energia aurrezteko argibideak banatu zituen Elgoibarko herritarren artean. •Udalak, bere aldetik ere, kontzientziatzeko eta energia aurrezteko aholkuak ditu **Elgoibarko web orriko AGENDA 21 atalean**.

••Momentuz ez da kanpainerik egingo, baina egingo balitz, zuekin jarriko ginateke kontaktuan

**Ingurumena- Agenda 21 - Elgoibar**

Funtsezko Ingurumen sektoreak: **Energia**

### 4.3.1. Energia aurrezteko gomendioak

Energia aurrezteko eta era eraginkorren erabiltzeko ez dago bizi-kalitatea gutxitu beharrik, nahikoa da ohiturak aldatzea. Hausnarketa egitera gonbidatzen zaitugu, eta etxean energia aurrezteko eragiketa erraz batzuk praktikatzeko proposatzen dizugu.

**1. Argiturriak:**

- Kontsumo gutxiko bonbillak erabili
- Behar ez diren argiak itzali
- Argiaren intentsitatea erregulatzeko gailuak erabili.
- Ahalik eta gehien aprobetxatu argi naturala

**2. Etzetresna elektrikoak:**

- Ekologikoak direnak erabili (gutxiago kutsatzen dute, gehiago irauten dute eta birziklatu egin daitezke)
- Hozkailua, arropa-garbigailua edo ontzi-garbigailua erosterakoan, bakoitzaren etiketa energetikoari begira iezaito, eta eraginkorrena aukeratu (A edo B mailakoak). Nahiz eta garestiagoak izan, diruan dagoen alde hori argindarrean aurrezteko duzu.
- Garbiketarako eko-programak edo energia eta ura aurreztekoak erabili.
- Entxufetik atera erabiltzen ez dituzunak, energia gastatzen dute eta eremu elektromagnetikoak sortzen dituzte
- Ez utzi pilotua zain egoeran piztuta; etzetresna elektrikoak martxan dagoenean kontsumitzen duenaren %15 kontsumi dezake.
- Ur beronik ez erabili arropa garbitzeko, energia asko kontsumitzen du
- Hozkailuko atea ez zabaldu askotan eta tenperatura ondo erregulatu, barruko edukia eta kanpoko tenperaturaren arabera.

## 9. proposamena

**IKASTETXEA:** ELGOIBAR INSTITUTUA

**IKASLEA:** VANESA GÓMEZ, DBH 4. maila

**DIAGNOSTIKOAREN AZALPENA:**

Eskola-mailan energiaren erabilerari buruzko diagnostikoa egin dugu eta hobetu daitezkeen jarrerak aurkitu ditugu: ➤ Askotan, gelak libre gelditzean argiak piztuta uzten ditugu. ➤ Kalefakzioa martxan dagoela leihoak irekita egoten dira. ➤ Komunetan, argiari ematerakoan fluoreszente guztiak batera pizten dira.

➤ Gutxi erabiltzen diren toki ilunetan ez daude argi-sentsorerik eta alferrik egoten dira piztuta. **KONPROMISOAK:**

Hori dena ikusita, guk konpromiso hauek hartu ditugu:•Gelatik ateratzen garenean argiak itzaltzen saiatuko gara

•Datorren ikasturtean kalefakzioa eguraldiaren arabera, ordu gutxiago piztuta edukitzea eskatu dugu.

PROPOSAMENA EDO ESKAERA:

Ikasturte honetan energiaren gaia jorratu dugunean, konturatu gara energiaren inguruan hutsune asko ditugula. Zuengana gatoz gure zalantza batzuk argitzeko asmoz. Jakin nahiko genuke Elgoibarren energia nondik lortzen den, hau da, energia nuklearretik, hidraulikotik... Euskal Herrian sortzen den edo kanpotik erosi beharra dugun. ➤Bestalde, Elgoibarren energia berriztagarrien aldeko apusturik egin ote den jakin nahiko genuke. ➤Eta azkenik, zenbat energia kontsumitzen dugun.



### ERANTZUNA:

•Elgoibartarrek kontsumitzen duten energia: kanalizatuta dagoen gas naturala, iberdrolari erosten dion elektrizitatea eta gasolineran erosten diren erregaietatik dator.

••Orotara Elgoibarko herriak **104.423.178 kwh** kontsumitu zituen 2006. urtean elektrizitate eta gasari dagokionez.

••Elgoibarren energi-berriztagarrien bidez, ibaiko minihidrauliko instalazioetan **5.633.300 kwh** sortzen dira urtero. Eskualde mailan energia berriztagarriak gehien sortzen duen herria da.

••jabe-pribatuak daramate, eusko jaurlaritzaren ingurumen sailari baimena eskatu ondoren.

## 10. proposamena

**IKASTETXEA:** ELGOIBAR INSTITUTUA

**IKASLEA:** IKER ALONSO, DBH 1go maila

DIAGNOSTIKOAREN AZALPENA:

Herri mailan ere egin dugu diagnostikoa eta gauza hauek ikusi ditugu:

➤Udaletxeko plazan eta merkatu plazan bereziki estetikoak diren lurreko argi urdinak daudela. KONPROMISOAK:

Argindarraren kontsumoari dagokionez, gu etxean pixkanaka kontsumo txikiko bonbillak erabiltzen hasiko gara.

PROPOSAMENA EDO ESKAERA:

Gure proposamena: ➤Herriko plazako frontoian kirola egiteko argi gutxi dagoela iruditzen zaigu. Eta proposatzen dugu, argi apaingarriak erabili beharrean foku on batzuk jartzea eta erabiltzen ez den ordutan edo behar ez diren ordutan itzaltzea.



### ERANTZUNA:

•Argi urdinak Udalak aukeratutako Berritze lanaren diseinuaren atal txiki bat baino ez dira. •LEDsa dira, beraz oso gutxi gastatzen dute, ia ezer ere ez, 1 kwh bakoitzak. •Frontoian argi gutxi dagoela, aztertu beharko litzateke. Udalak egiten ari den ikerkertaren emaitzak esango digu, eta hala izango balitz, zer egin beharko genuke.

•Argiek, argitu ez ezik, segurtasuna ematen dutela herritarrei, bereziki urrutiko lekuetan. Beraz batzuetan, segurtasun neurriak premia handiagoa dute energiaren kontsumoa baino.

## 11. proposamena

**IKASTETXEA:** ELGOIBAR INSTITUTUA

**IKASLEA:** MIREN VIÑE, DBH 1go maila

**DIAGNOSTIKOAREN AZALPENA:**



Herriko diagnostikoa egitean beste gauza hauetaz ere konturatu ginen:

Herriko argi-farolak ez dute eguzki-plakarik ezta semaforoek ere.

➤ Hala ere, txarriduna ondoko plazan TAO-ko kabinetan badaude eguzki-plakak

**KONPROMISOAK:**

Gure eskolan badaude eguzki-plakak eta beraiei lotutako paneletan agertzen den bezala, CO<sub>2</sub> emisioak asko gutxitzen dira horrela.

**PROPOSAMENA EDO ESKAERA:**

➤ Beste herri batzuetan bezala Elgoibarren ere, faroletan eta semaforoetan eguzki-plakak jartzea



### ERANTZUNA:

- Proposamena ona da eta ados gaude zuekin, baina inbertsio ekonomiko handia behar du horrek.
- Eguzkiko plakak erabiltzen duen farola bakoitzak 3.000 € baino gehiago balio du, eta ibilbide bat edo kale bat argitzeko askotan 10 behar dituzula gutxienez, hau da diru handia beste farolekin konparatuz gero.
- Eguzkiko plaka hauek ezin dira edozein lekuan jarri, eguzkia eman behar diete denbora luzean, beraz etxeen artean ezin dira kokatu.
- Hala ere zuen proposamena kontuan izango dugu.

## 12. proposamena

**IKASTETXEA:** ELGOIBAR INSTITUTUA

**IKASLEA:** MAIALEN GURRUTXAGA, DBH 4. maila

**DIAGNOSTIKOAREN AZALPENA:**

Aurrekoek esan duten bezala, herriko diagnostikoan, ondoko hau ere ikusi dugu:

➤ Eskailera mekanikoak etengabe mugimenduan daude eta denbora luzez ez dira erabiltzen.

**KONPROMISOAK:**

Eskailera mekanikoen inguruan ezin dugu konpromisorik hartu, baina eskolan energiaren aurrezpen kontzientzia handitzen eta zabaltzen saiatuko gara.

**PROPOSAMENA EDO ESKAERA:**

Herriko diagnostikoa aztertu ondoren, zuengana gatoz gure zalantza batzuk argitzeko asmoz.

Lehen esan bezala, ikusi dugu eskailera mekanikoak etengabe mugimenduan daudela, eta, agian, jendea gainean jartzen denean soilik mugitzeko sentsore batzuk ipintzea proposatzen dugu. Hala ere, ez dakigu beste sistema horrek energiaren aurrezpena ekarriko lukeen edo ez.



### ERANTZUNA:

- Jendea ez dagoenean, eskailerak mugitu egiten dira baino poliki-poliki, hau da energia gutxi gastatzen.
- Horrela etengabe funtzionatzen energi gutxiago gastatzen dute, jendea ez dagoenean guttiz gelditu eta gero berriro martxan jartzen baino.

### 13. proposamena

**IKASTETXEA:** NUESTRA SEÑORA DEL PILAR

**IKASLEA:** UNAI DBH 1go maila



#### DIAGNOSTIKOAREN AZALPENA:

Enpresetan eta zenbait etxeetan ke asko sortzen da eta atmosferara doa tximenetatik. Ondorioz CO<sub>2</sub> asko isurtzen da, negutegi efektua sortuz, eta horrekin batera, aldaketa klimatikoa. Badirudi tximenetan jarri ahal direla filtro batzuk hainbeste ez kutsatzeko

#### PROPOSAMENA EDO ESKAERA:

Elgoibarren hori posiblea ahal da? Uste dugu pena merezi duela dirua gastatzea horretan. Eskerrik asko zuen arretarengatik.




### ERANTZUNA:

- Ez dago CO<sub>2</sub>a harrapatzen duen filtrorik.
- Industrietako Tximiniak beroa (energia) sortzerakoan, sortzen den CO<sub>2</sub>, gainontzeko gasak (H<sub>2</sub>O, NO, NO<sub>2</sub>, CO) eta partikula desberdinak kanporatzeko balio dute. Filtroek partikula solido txikiak harrapatzen dituzte, baina ez gasak, hauek atmosferara isurtzen dira.
- Beraz, gelditzen den neurri bakarra beroa sortarazten duten **kaldarak kontrolatzea da**, aldaketa klimatikoa sortarazten duten gas isurketen kopurua minimoa izan dezan

### 14. proposamena

**IKASTETXEA:** NUESTRA SEÑORA DEL PILAR

**IKASLEA:** EIDER DBH 1go maila



#### DIAGNOSTIKOAREN AZALPENA:

Proposamen hau aurrekoarekin lotuta dago. Informazioa nahi dugu. Jakin nahi dugu ea Elgoibarko enpresek energia gehiegi kontsumitzen duten.

#### PROPOSAMENA EDO ESKAERA:

Ba al dituzte arauak energiaren kontsumoari buruz? Eta keen isurketetatik? Betetzen ez dituztenei, isunak ipintzen al dira? Eskerrik asko informazioagatik.



### ERANTZUNA:

- Gu dakigunez, ez dago energiaren kontsumoari buruzko araurik
- Keen isurketari dagokionez, hauek kontrolatzen duen araua badago.

Hain zuzen beroa sortarazten duten **kaldarei buruzkoa**, aldaketa klimatikoa sortarazten duten gas isurketen kopurua minimoa izan dezan helburuarekin

- Bi kaldara talde daude: 70 kw baino gehiago eta gutxiagoko potentzia erabiltzen dutenak. Bakoitzak bere kontrol neurri desberdinekin
- Kaldara hauen kontrola Eusko Jaurizaritzako Ingurumen sailari dagokio, baita isunak jartzea.

### 15. proposamena

**IKASTETXEA:** NUESTRA SEÑORA DEL PILAR

**IKASLEA:** SERGIO DBH 1go maila

**DIAGNOSTIKOAREN AZALPENA:**

Berogailuak buruz hitzegingo dut. Neguan, zenbait eraikin publikoetan bero gehiegi dago. Esaten dute nahikoa dela tenperatura 20 graduko tenperaturekin.

Batzutan bero gehiegi dago berogailua zentralizatua dagoelako, eta bakarkako neurgailuak ez dituztelako

**KONPROMISOAK:**

Gure aldetik gure etxeetan berogailuaren erabilera murrizteko konpromisua hartzen dugu. Adibidez neguan arropa gehiago jantziz

**PROPOSAMENA EDO ESKAERA:**

Udaletxeko berogailuek bakarkako neurgailuak dituzte? Horrela ez bada, ipintzeko aukera dago? Gauetan itzaltzen dira? Eskatuko genizueke berogailuaren erabilera murriztea ahal den neurrian. Eskerrik asko.



### ERANTZUNA:

- Eraikin publiko bakoitzak bere berogailu sistema berezia du. Eraikin batzuk gasa erabiltzen dute, beste batzuk propanoa, eta beste batzuk elektrikoa.
- Sistema bakoitza eraikinaren eta beharraren arabera egokitu beharko litzateke, beraz eraikin batzuetan nahiko izango da termostata aldatzea eta beste leku batzuetan agian beharrezkoa izango da berogailu sistema berri bat jartzea.
- Kontuan izango dugu zuen proposamena ea hurrengo urtean udaleko energi-kontsumoa murrizten dugun**